

Bergarako musika eta dantza eskolako

HEZKUNTZA PLANA



Aurkibidea

- 1.- SARRERA**
- 2.- SORRERA**
- 3.- BERGARAKO MUSIKA ESKOLAREN IZAERA**
- 4.- TESTUINGURUA**
- 5.- MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN KOKALEKUA**
- 6.- MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA SAREETAN**
- 7.- APLIKAGARRI DEN LEGE ESPARRUA**
- 8.- ESKOLAKO AGIRI ETA HITZARMENAK**
- 9.- BIZIKIDETZA PLANA**
- 10.- PRESTAKUNTZA PLANA**
- 11.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEA**
- 12.- METODOLOGIA OROKORRA**
- 13.- EBALUAZIOA –TUTORETZA**
- 14.- TUTORETZA**
- 15.- HIZKUNTZAREN ERABILERA**
- 16.- HEZKUNTZA PLANA**
- 17.- DANTZA ESKOLA**
- 18.- MUSIKOTERAPIA**
- 19.- PROIEKTU BERRIEN SUSTAPENA**
- 20.- IRAKASLEEN FORMAKUNTZA PLANA**

1.- SARRERA

Dokumentu honek, Bergarako musika eta dantza eskolaren izaera, gure helburu pedagogikoak eta gure hezkuntza planaren beste hainbat aspektu azaltzen ditu.

Dokumentu hau ez da trinkoa. Etengabe berrikusiko den dokumentua izango da, beti ere gure hezkuntza komunitateak adostuta.

Gure helburu nagusiak mantentzen dira; Gure ikaslegoari musika ikasketak egitea bidea ireki eta erraztu nahi diegu. Gure herriko kultura eskaintzan agente izaten jarraitu nahi dugu eta pertsonen ongizatean musika eta dantzak duen eragin positiboa ikusirik, hortan eragin nahi dugu.

Bergara

Bergara Gipuzkoako mendebaldeko udalerri bat da, Debagoiena eskualdekoa. 14.905 biztanle zituen 2016. urtean. Udalerraren luze-zabalera 75,97 km² izanik, biztanle-dentsitatea 196,19 bizt./km²-koa da. Gipuzkoako bigarren udalerri handiena da. Deba ibaiak zeharkatzen du alderik alde. Auzo ugariz osatua dago (Osintxu, Angiozar, Ubera, Basalgo, Elorregi...).

Bergara historikoki Debagoieneko hiriburutzat hartu izan da, hainbat bideren lotunean baitago: izan ere, kostaldea eta Gaztelako ordokia lotzen duten bideek eta Gipuzkoa barrualdeko bideek egiten dute bat Bergaran.

2.- SORRERA

Bergarako musika eskola 1984. urtean sortu zen hainbat pertsonen eta elkarteren ekimenez. Beti jaso du eskolak Bergarako udalaren eta Eusko jaurlaritzaren laguntza eta babes. Eskolak urteen poderioz transformazio handia jasan du.


Hona hemen aldaketa nagusiak:

- 2015. Urtean Musika ikasketak eskaintzeaz, euskal-dantza barneratu zen.
- Hasiera baten instrumentu jakin batzuekin hasi bazen ere, urteen poderioz eskaintza zabaltzen joan da. Alde batetik, rock eremuko instrumentuak (gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, konbo taldeak), instrumentu herrikoiak (trikitixa, panderoa, alboka, txistua, dultzaina eta txalaparta).
- Taldeen eskaintza haunditu da (fanfarre taldea, rock taldeak, trikitixa taldea, soka taldea...)
- Adin muga ireki eta geroz adin tarte handiagoko ikasleak datoz. Gaur egun ikasle heldu asko dauzkagu.
- Herriko hainbat talde eta eragileekin lankidetzak handitzen ibili gara (Bergarako Orfeoia, Bergarako banda, Jardun euskara Elkarte...)
- Bergaran irakasteaz gain, alboko herrira ere irasle talde bat joaten da.

3.- BERGARAKO MUSIKA ESKOLAREN IZAERA

Hezkuntza ez arautuan espezializatutako ikastetxe pribatua. Klaseak Bergaran eta Antzuolan ematen dira.

Hau da gure organigrama:



Eskolak, guraso eta irakasleen arteko Zuzendaritza batzordea dauka. Honako osaera dauka:

- LEHENDAKARIA
- DIRUZAINA
- LEHENDAKARI ORDEA
- BOKALAK EDO BATZORDEKIDEAK

Bertan irakasleon ordezkariak eta Zuzendaritza ere bagaude. Hilean behin, bilera batetara deitzen da eta urtean batzar orokor bat egiten da.

Bestetik, eskolako Zuzendaritza zuzendariak, ikasketa buruak eta idazkariak osatzen dute. Astean behin astelehen goizetan egiten dituzte bilerak eskolaren funtzionamenduaz hitz egiteko.

Irakasleak eta zuzendaritzak aldiz, hiruilean behin klaustro orokor bat egiten dute eta astero asteartetan gai espezifikoek hitz egiteko bilerak egiten dituzte.

Bergarako Musika eta Dantza eskolako langilegoa irakasleek, idazkariak eta garbitzaileak osatzen dute.

4. TESTUINGURUA

Bergara herriak aktibitate handiko kultura emaria dauka eta honek ahalbidetzen du musika eta dantza eskolatik irtengo diren ikasleak jarraipena izatea.

Talde eta ekimen asko izateaz gain, kultura asko kontsumitzen duen herria da.

Hona hemen herrian dauzkagun talde musikal esanguratsuenak:

- Bergarako orfeoi gaztea eta orfeoia. Eskolako abesbatzetatik pasa ondoren, ikasleak bertara jauzia egiten dute. Momentu honetan talde honen eta eskolaren artean hartueman handia daukagu, hainbat ekimen elkarrekin egiten ditugularik (ahotsak batuz, dantza-abetesbatza emanaldia...)
- Bergarako musika banda. Herriak musika banda bat dauka. Eskola eta bandaren artean zuzeneko elkarlana dago. Urtean zehar adibidez elkarrekin kontzertu pedagogikoa egiten dugu, bertan eskolako banda eta herriko bandak batera jotzen dutelarik. Urtero hainbat ikasle sartzen dira herriko bandan.
- Herriko okestra sinfonikoa: Bergarak orkestra bat dauka. Hemen ere elkarlana etengabekoa da eta urtero hainbat ikasle sartzen dira bertan.
- Rock taldeak: Herrian hainbat rock talde dauzkagu eta gaur egun instrumentu horietan trebatu nahi duenak eskolan aukera dauka.
- Musika herrikoia: Herriko hainbat festatan musika herrikoia presente dago eta gure ikasleek parte hartzen dute. Auzoetara ere bertaratzen dira.
- Musikalak: Bergarako Musika eta Dantza eskolaren istorian zehar hainbat musikal taularatu dira, betiere euskaraz (Miserableak, Peter Pan, Alizia.....). Azken urteetan BAM elkartearekin elkarlanean aritu gara.


5.- MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN KOKALEKUA

Bergarako musika eta dantza eskola erdigunetik oso gertu dago kokatuta, eta sortu zenetik Mariaren Lagundiak eginiko lagapen bateko eraikinean dago. Hiru solairuz osatutako eraikina da.

Beheko solairuan, idazkaritza eta hainbat espezialitateko instrumentuak erakusten dira. Konbo gela ere bertan dago.

Lehen solairuan, Zuzendaritza, entsegu gela, sormen gela eta entsaio aretoa dago.

Azken solairuan aldiz; irakasle gela eta beste hainbat musika tresna erakusten dira.



6.- MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA SAREETAN

Eskolaren informazioa herriari eskaintzeko asmoz hainbat bide ezberdin erabiltzen ditugu.

- Web orria: www.bergarakomusikaeskola.com Bertan matrikulazio informazioa, albisteak eta musika eta dantza eskolako informazio pedagogikoa aurkitu daitezke.
- Sare sozialak: Facebook eta Instagram. Sare hauetan, informazio eguneratua herritarrengana gerturatzen saiatzen gara. Bertan, egiten ditugun ekitaldiak, gure informazio eguneratua eta beste hainbat bitxikeria sartzen ditugu.
- Youtube: Youtubeko kanalean gure hainbat ekitaldi sartzen ditugu. Herritarrek ikus eta entzun dezaten zuzenean, egiten duguna.

7.- APLIKAGARRI DEN LEGE ESPARRUA

64/2024 DEKRETUA, Maiatzaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen “Musika eta Dantza eskola” arautzen duena.

8.- ESKOLAKO AGIRI ETA HITZARMENAK

Bergarako musika eta dantza eskolak, Bergarako eta Antzuolako udalekin urtero hitzarmena sinatzen du.

Hitzarmen honetan, eskolak hainbat konpromezu hartzen ditu kurtsoan zehar. Hauek dira batzuk:

- San Martinetako danborrada eta trikitilarien kalejira

- Dantza txapelketak
- Gabonetan trikitilariak
- Erramu zapatua
- Apirilean Musika
- Gabonetako eta Udaberriko kontzertuak Antzuolan eta Bergaran.
- ...

Horrez gain, Bergarako orfeoiarekin, Jardun euskara elkartearekin, ikastetxeekin, San Joxepe elkartearekin, Bergarako banda eta orkestrarekin... zuzeneko harremanak ditugu.

Eskolak bestetik hainbat dokumentazio betetzen ditu urtean zehar: bilera aktak, urteko memoriak, programazio didaktikoak...

9.- BIZIKIDETZA PLANA

Eskolaren helburua, etengabe elkarbizitza bultzatzea da eta berau lortzeko ekimenak bultzatzea.

Horretarako hainbat arlotan jarduten dugu:

- Familiengan eta ikasleengan, komunikazio eraginkorra bideratu.
- Giro lasaia bultzatu.
- Eskolako arautegia, jokabide desegokiak sahiesteko.
- Emakume eta gizonezkoen berdintasuna bultzatu.
- Erabiltzen den materiala, elkarbizitzarako egokia dela aztertu.

- Irakasle eta ikasleen artean genero-berdintasuneko hezkuntza bultzatu.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza, baloreetan sentsibilizatzeko.
- Kulturarartekotasuna eta aniztasuna.
- Eskolako kideen jatorriak errespetatu eta aniztasunean hezi.
- Eskolako kide guztion harteko errespetua.

10.- PRESTAKUNTZA PLANA

Bergarako Musika eta Dantza Eskolak herriari eta gizarteari heziketa musikala eskaintzea da helburu nagusia, bai helburu ludikoa eta baita helburu profesionala, kalitatezko heziketa musikala ziurtatu nahi dugu. (Praktikoa eta entzule moduan, etorkizuneko bokazioak pizten lagundu)

• **HELBURU OROKORRAK**

Helburu nagusiak

1. Arautu gabeko musika-irakaskuntza praktikoa, musika egiteko helburuarekin herrian eta gizarteari dagoen eskaera sozialari erantzunez.
2. Eskola inklusiboa, aniztasuna bermatzen duen eskola, sexu edo gaitasun musikal edo dantza murrizketa gabe eskaini izango ahal da.
3. Adin guztietako ikasleei kalitatezko Hezkuntza eskaintzea, 3 urtetik hasita adin mugatu gabe.

4. Musika mota desberdinak eskaintzea, klasikoa, modernoa, herrikoia....bai eskolako ikasle eta baita Bergarako herriari entzuteko zaletasuna piztu.
5. Bergarako musika eta dantzako ikasleak, interesa eta gaitasuna erakusten duten ikasleei, musika profesionalera bideratzea eta horrek eskaintzen duen esfortzu eta baliabideak eskura jartzea.
6. Bergarako Musika eta Dantza Eskola herriko taldeen harrobia izango da.
7. Eskolako eta herriko hainbat talderen arteko musika jarduerak sustatzea eta koordinatzea baita beste eskola batzuekin elkartrukeak egitea ere.
8. Bergarako ikastetxeekin harremana-elkarlana izatea, ekimen pedagogikoak bideratuko ditugu herriko ikasleei zein edozein herritarrei.
9. Proiektu berriak sortzea ahalik eta jende gehiago izan dezan harremana musika eta dantza heziketarekin eta kulturarekin.
10. Euskera eta kulturaren aldeko ekintzetan parte hartze aktiboa izatea.
11. Gure herriko kulturaren eragilea izatea.
12. Herriari zabaltzea egiten dugun lana eta proposamen kulturalak.
13. Euskal Herri mailan sortzen diren proposamen eta ekimenetan parte hartuko dugu EIO, EGO, ABESBATZEN FEDERAZIOA eta MUSIKA ESKOLEN elkarteak proposatutakoak.
14. Irakasleen etengabeko formakuntza dago gure helburu nagusien artean. Beraz, bultzatu eta babestuko ditugu irakasleen hobekuntza profesionala eskaintzen dituzten prestakuntza ikastaroetan partehartzea.
15. Ahal diren baliabide teknologikoak erabili. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan teknologia berrien erabilera areagotzea.

11.- ANIZTASUNARENI ERANTZUTEA

Eskolako ikasleak, adin, interes, ezaugarri, eta egoera personal desberdinetako pertsonak osatzen dute.

Hezkuntzaren antolaketa, bakarkako eta taldekako eskolen eskaintza efektiboaren antolamendua bermatzen du. Ikasle bakoitzak bere nahi eta beharrekin bat datorren arreta pertsonalizatua jasotzea, eta aldi berean inklusioa eta interakzioa bultzatzea eta baita harreman pertsonalak bultzatuz.

12.- METODOLOGIA OROKORRA

-**Aktiboa**: Ikaslea prozesuaren erdigunea da. Ez da informazioa jasotzera mugatzen bere prestakuntza elikatzeko, dantzatuz, abestuz, jo, sortu egiten du.

-**Norbanakoa**: Ikasle bakoitzaren interés eta gaitasunean oinarritzen da.

-**Sortzailea**: Espresibitatea, inprobisazioa... arlo guztietan landuz.

-**Konprometituta**: Norberaren autonomía garatzeko, ikasteko ohiturak eta teknikak erabiltzen erakutsi eta familiaren parte-hartzea indartu.

-**Dibertigarraia**: Modu ludiko baten erakustea.

-**Berritzailea**: Teknologia berrien erabilpena

13.-EBALUAZIOA- TUTORETZA

Ikasturtean 3 ebaluazio egongo dira eta ebaluazio bakoitzean adin txikikoei kalifikazio/txosten orri bat bidaliko zaie email bitartez. Asistentzia ikasle guztiei kontrolatuko zaie.

14.- TUTORETZA

Istrumentoko irakaslea ikaslearen tutorea izango da. Ikasleak ez badu instrumentorik jotzen, matrikulatuta dagoen taldeko irakaslea izango da tutorea.

Tutorea arduratuko da ikaslearen jarraipenaz eta familiarekin komunikatzeko erreferentea izango da. Tutoreak ikasturte hasieran astero ordutegi bat izango du ikasle eta familiekin elkartzeko.

Diploma banaketa : Ikasleak, 2. edo 3. nibelean eskatutako ikasgaiak bete baditu diploma jasoko du.

15.- HIZKUNTZAREN ERABILERA

-Ikasle eta irakasleen arteko harremanak beti euskaraz izango dira.

-Ikasgaien azalpenak eta materiala euskaraz izango dira baina ikasleren bat ulertzeko zailtasunak baditu gaztelera erabiliko da.

-Musika eta dantza eskolako mezu elektronikoak elebitan izango dira. Hasierako testua euskaraz eta azpian gazteleraz.

-Zuzeneko batzarrak, bai guraso, ikasle, edo udalarekin, euskara hutsean izango dira.

16.- HEZKUNTZA PLANA

Bergarako musika eta dantza eskola 3 nibeletan sailkatzen da:

1go nibela: 3-7 urtetako ikasleei zuzenduta, haurraren garapen pertsonala, soinu, erritmo, ahotsa eta mugimendu jardueren bidez.

2.nibela: 8 urtetik aurrera, adin mugarik gabe. Ahotsa eta instrumentoa erabiliz sentsibiltate eta garapen pertsonala garatuz.

3.nibela: Nibel honetara helduko dira 2.nibela gainditu ondoren. Kontserbatorioetako oinarrizko maila gainditzeko duen ikaslearen pareko.

IKASKETA PLANA

1go nibela (3-7 urte)

3 urtetik aurrera	SUZUKI METODOA (biolina)
5urtetik aurrera	MUSIKA TAILERRA
5urtetik aurrera	HASIBERRIEN ABESBATZA
6 urtetik aurrera	EUSKAL DANTZA
7 urtetik aurrera	HIZKUNTZA MUSIKALA 1

2. nibela (8-13 urte)

Aukeratzeko

8 urte	HM 2 + INSTRUMENTOA 1	Abesbatza, euskal dantza...
9 urte	HM 3 + INSTRUMENTOA 2	Abesbatza,euskal dantza,talde txikiak...
10 urte	HM 4 + INSTRUMENTOA 3	Abesbatza,euskal dantza,talde txikia...

11 urte	HM 5 +ISTRUMENTOA 4 + KORALA 1	Abesbatza,euskal dantza,taldeak...
12 urte	ISTRUMENTOA 5+ KORALA 2 + ARMONIA HASTAPENA	Euskal dantza , taldeak...
13 urte	ISTRUMENTOA 6+ ARMONIA 1	Euskal dantza, taldeak...

3. nibela (14 urtetik gora)

14 urte	ISTRUMENTOA 7+ARMONIA 2+GANBARA MUSIKA 1	Euskal dantza, taldeak...
15 urte	ISTRUMENTOA 8+INFORMATIKA MUSIKALA	Euskal dantza, taldeak...

14 urtetik aurrera : gitarra elektrikoa, bajo elektrikoa

Taldea*:

11 urtetik gora: Gazte banda, Orkestra, Abesbatza,Triki taldea,Akordeoi taldea...

14 urtetik gora: Big band, Fanfarrea, Gazte orkestra, Gazte banda, Trikitixa taldea,Akordeoi taldea,Soka taldea, Rock taldeak...

***2. Nibeleko diploma lortzeko** : HM 5 ikasturte, instrumentoa 6 ikasturte eta korala 2 ikasturte edo Abesbatzan 5 ikasturte egina izatea.

***3. Nibeleko diploma lortzeko:**Istrumentoa 8 ikasturte, Armonia 2 ikasturte eta Ganbara musika ikasturte 1

1go NIBELEKO IKASGAIK ETA TALDEAK

-SUZUKI METODOA (biolina) : 3 urtetik aurrera. Astean 30 minutuko bakarkako saioa eta taldeko saioa

-MUSIKA TAILERRA : 5 urtetik aurrera. 45 minutuko 2 saio.

-HASIBERRIEN ABESBATZA : 5 urtetik aurrera. 45 minututako saio bat.

-EUSKAL DANTZA: 6 urtetik aurrera. 45 minutuko 2 saio.

-HIZKUNTZA MUSIKALA 1go maila: Aula virtual programa erabiliz 7 urtetik aurrera 45 minutuko 2 saio.

2. eta 3. NIBELEKO IKASGAIK ETA TALDEAK (8-99 urte)

-HIZKUNTZA MUSIKALA: Aula virtual programa erabiliz, astean 45 minutuko 2 saio

-Armonia hastapena: Astean 60 minutuko saio bat.

-Armonia: Astean 60 minutuko saio bat.

-Korala: Astean 60 minutuko saio bat.

-Ganbara musika: 60 minutuko saio bat.

-Euskal dantza: 45 minutuko 2 saio.

-Talde txikiak: istrumentoan 2. eta 3. mailatan dauden ikasleendako.

Soka taldea, metal taldea, haize taldea...Astean 30 minutuko saioa.

-HAURREN ABESBATZA: Astean 60 minutuko saio bat.

-GAZTE ORKESTRA: Astean 90 minutuko saio bat.

-GAZTE BANDA: Astean 60 minutuko saio bat.

-FANFARREA: Astean 60 minutuko saio bat.

-BIG BAND: Astean 60 minutuko saio bat.

-EUSKAL DANTZA: Astean 45 minutuko 2 saio.

-ROCK TALDEA: Astean 60 minutuko saio bat.

Istrumentu eta kanto eskola: 30 minutuko saio bat

-Haria: biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua

-Haizea - egurra: flauta, oboe, fagota, klarineta, saxofoia

-Haize -metala: tronpeta, tronpa, tronboia, bonbardinoa, tuba .

-Perkusioa

- Tradizionalak: txistua, trikitia, panderoa, txalaparta, dultzaina, alboka
- Polifonikoak: pianoa, akordeoia, guitarra.
- Joera anitzekoak: guitarra elektrikoa, baxu elektrikoa.
- Kantoa
- Musikoterapia

Istrumentoen klaseak bakarkakoak izango dira eta talde desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

Ikasgai bakoitzak bere programazioa du, helburu zehatzak, edukiak eta metodologiarekin.

Istrumentoen erabilera:

Begarako musika eta dantza eskolak instrumentu-parkea du hasiberrientzat.

17.- DANTZA ESKOLA (6-99 urte)

Helburuak hauek dira:

- Euskal dantzak erakustea, bereziki gipuzkoako pausuak.
 - Herriko auzo eta jaietan presentzia aktiboa
 - Gorputzaren eta mugimenduaren kontrola lortzea, eta horri esker, gaitasun tekniko eta adierazkor handiagoa izatea, norberaren nortasun eta sentsibilitate artistikoa garatuz.
 - Euskal dantzak oinarri hartuta, sormena eta koreografiak lantzea.
 - Helduen eta Euskal Herriko gazteen Dantza Txapelketa antolatzea.
- Euskal dantza espezialitatea 45 minutuko 2 saiotan banatzen da.

18.- MUSIKOTERAPIA (6-99 urte)

Musikoterapia musika eta haren osagaiak (erritmoa, melodía, harmonia, soinua, isiltasuna, mugimendua...) erabiliz egiten den interbentzio terapeutikoa bat da, pertsonaren osasun fisikoa, emozionala, kognitiboa, eta soziala, hobetzeko helburua duena, besteak beste.

Profesional espezializatu batek gidatzen ditu saioak, erabiltzearen beharretara egokituta.

Gure musika eta dantza eskolan , banakako saioen bidez eskeintzen da, bakoitzak 45 minutuko edo ordu bateko iraupenarekin. Ikasle bakoitzaren beharren arabera egokitzen dira jarduerak: entzute aktiboa, musika-tresnen erabilera, ahotsaren adierazpena, mugimenduaren bidezko esperimentazioa, etb..

Musikoterapiaren helburuak

- Adierazpen emozional eta sentimenduen kudeaketa
- Arreta, konzentrazioa eta memoria sustatzea
- Entzule aktibo eta erantzun egokia garatzea
- Harreman sozialak eta komunikazioa hobetzea
- Estresa eta antsietatea arintzea, erlaxazioa lortuz
- Autoestimua eta segurtasuna indartzea
- Motorra koordinazioa eta gorputz adierezpena lantzea.

Musikoterapia persona ororentzat izan daiteke egokia, jarraian kasu batzuk aurkezten dira:

- Desgaitasunen bat duten ikasleentzat
- Portaera edo arreta arazoak dituztenentzat
- Estres-egoeretan daudenentzat
- Komunikazio zailtasunak dituztenentzat
- Aldaketa emozional edo familiar garrantzitsuak bizi dituztenentzat

Musikaren bitartez ikasleek autoaurkikuntza, segurtasun emozionala eta motibazio handiagoa garatzen dute.

Gainera, giro atsegin eta seguruan lan egiteak ikasleen garapen osoa laguntzen du, ikaskuntza prozesuan ere eragin positiboa izanik.

19.- PROIEKTU BERRIEN SUSTAPENA

Musika eta dantza eskolak proiektu berrien proposamenak jasoko ditu.

- 1- Proposamenak , bai irakasle , ikasle , guraso , ikastetxe, udala edo edozein herritar aldetik jaso daitezke.
- 2- Behin proposamena dagoela, proposamena sakondu eta aztertu egingo da.
 - Azterketa pedagogikoa (irakasleen artean)
 - Azterketa ekonomikoa (baliabide ekonomikoak)
 - Azterketa soziala (ze eragin izan dezake)
- 3- Azterketa desberdinak egin ostean, eta proposamena aurrera badoa, zuzendaritzak, klaustrotik eta guraso elkartetik pasa eta erabakiko da nola egin.

Proposamena hezkuntzarekin zerikusia badu, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailera bideratuko da hurrengo ikasturtean martxan jartzeko.

20.- IRAKASLEEN FORMAKUNTZA PLANA

Irakasle bakoitza bere espezialitatearen titulazioa izan behar du. Ikasgaiak titulu ofizialik izan ezean , Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak emandako habilitazioa izan beharko du.

Ikasturtean zehar irakasleei formakuntza desberdinak eskainiko zaizkie.

Gizartea aldatzen doan bezala, irakasteko metodologiak ere aldatzen doaz. Eskolak beti bideratuko ditu formakuntza berriak egitera eta etengabeko formakuntza bultzatu nahi dugu.

*Bergarako musika eta dantza eskolako Zuzendaritza
2025eko ekainaren 20an.*